

AFEKTUA ETA HEZKIDETZA LEHEN HEZKUNTZAN

*haur eta lehen hezkuntza
educación infantil y primaria*

BILDUMA: "CURRICULUM-MATERIALAK"

COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

12

BILDUMA: "CURRICULUM-MATERIALAK"

COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

- 1** Baloreetan hezte gorputz hezkuntzan
Educar en valores en educación física
- 2** Dealing with primary mixed ability groups
o qué hacer en clase
- 3** 0-3 zikloa 2. urtekoen gelak
El ciclo 0-3 las aulas de 2 años
- 4** Euskara ikasteko unitate didaktikoak
- 5** Txikitatik idazle eta irakurle
- 6** Gorputz-hezkuntza: lanerako proposamenak
- 7** Educación física: propuestas prácticas
- 8** Matematika eta jolasak
- 9** Haur hezkuntza gelarako proposamenak (3-6 urte)
- 10** Haur hezkuntzarako ikastetxe curriculum proiektuak (0-3 urte)
- 11** Ikastea eta Egitea Proiektuen bidez
- 12** Afektua eta hezkidetzeta Lehen Hezkuntzan
Afecto y coeducación en Educación Primaria

ISBN 84-457-2063-5



SALNEURRIA: 8 €

AFEKTUA ETA HEZKIDETZA LEHEN HEZKUNTZAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

Afektua eta hezkidetzaren lehen hezkuntza / [koordinatzailea, Azagirre Atxaorbea, Felisa ; egileak, Eguren Zenarruzabeitia, Edurne ... et al.]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003

or. ; cm. – (Bilduma “Curriculum-materialak”. Haur eta lehen hezkuntza = Colección “Materiales curriculares”). Educación infantil y primaria ; 12)

Badu, gainera, atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: “Afecto y coeducación en educación primaria”

ISBN 84-457-2063-5

1. Afektibitatea. 2. Hezkidetzaren. I. Azagirre Atxaorbea, Felisa. II. Eguren Zenarruzabeitia, Edurne.

III. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. IV. Bilduma.

159.943

37.043.2

BILDUMA: MATERIAL CURRICULARRAK.

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA.

12. AFEKTUA ETA HEZKIDETZA LEHEN HEZKUNTZAN

Koordinatzailea:

AZAGIRRE ATXAORBEA, Felisa

Egileak:

EGUREN ZENARRUZABEITIA, Edurne
ETXEBARRIA ELOSEGI, Nerea
GONZALEZ ISASI, M^a Victoria
RODRÍGUEZ ORMAZABAL, Ana M^a
SARRIONANDIA DERTEANO, M^a Nieves

Marrazkilariak:

VIEITES GARCÍA, Azucena
OKARIZ IJURKO, Itziar

Ipuinlaria:

MELEDA ARANA, Iñaki

Ipuin itzultzailea:

BURGOA REMENTERIA, Anton

Itzultzailea:

Berbaro

Hezkuntza Sailak Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko irakasle taldeen artean material curricularren ekoizpenerako diru laguntzak banatzeko egindako deialdietan (Agindua 1996ko uztailaren 17koa, EHAA abustuak 8 eta Agindua 1996ko abenduaren 11koa) parte hartutako artean honako material curricular hauek aukeratuak izan dira. Egileek Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan gelarako material bezala erabiltzeko baimena lutzatzen dute edizio honetarako.

Argitaldia:	1.a, 2003ko abendua
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argitaldiaren arduraduna:	Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea Asturias, 9, 3. - 48015 BILBAO
Fotokonposizioa:	Composiciones Rali, S.A. Particular de Costa, 8-10, 7. ^a - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S.A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-2063-5
L.G.:	BI-3201-03

1. GAITASUNEN GARAPENEAN BALOREEK DUTEN GARRANTZIA	9
2. JUSTIFIKAZIO TEORIKOA	13
2.1. Gizarte-ikaskuntzaren teoria	13
2.2. Ikaskuntza kognitiboa: Kholberg	16
2.3. Sozializazioa: gogoeta psikologikoa	18
2.4. Hezkidetzeta eta eguneroko bizitza	21
3. EGUNERO EGOERA ZEHATZAK BEHATZEA	25
3.1. Afektibitate-hezkidetzako hezkuntzarako helburu bananduak	25
3.2. Materialgintza	26
4. LANERAKO PROPOSAMENAK	29
4.1. Ipuin tradizionalen azterketa	29
4.2. <i>Indartsua eta ezitia</i> ipuina	31
4.3. Sentimenduak adierazteko jolasak	33
4.4. Nork bere burua indartzeko jolasak	36
4.5. Konfiantza lortzeko jolasak	39
4.6. Komunikazioa lantzeko jolasak	41
ERANSKINA: INDARTSUA ETA EZTIA IPUINA	45

**1. GAITASUNEN GARAPENEAN BALOREEK DUTEN
GARRANTZIA**

1. GAITASUNEN GARAPENEAN BALOREEK DUTEN GARRANTZIA

Baloreak “kultur eraikuntzak dira, gizarte, talde zein elkarte konkretu batean sortzen direnak, gizarte horrek giza gaitasunei aitortzen dien mailaren adierazle modura hartuta”.

Horren arabera, baloreak, gizarte-mailan edo pertsonalki ezarritako jarraibideen adierazleak dira. Giza gaitasun naturalak positiboki edo negatiboki sailkatzen dituzten lanabesak dira. Edo bestela esanda, balorea, gaitasun bakoitzari ematen zaion gizarte-balioa da.

Baloreek gaitasunen garapena mugatzen dute. Alde batetik, garatzen ditugun gaitasunetan eragina dute eta bestetik, gaitasun horiek garatzeko moduan eragina dute.

Gizakion taldeei, menperatze-sistema desberdinen bidez, hala nola sistema Politikoa, Ekonomikoa, Erlijiosoa, Ideologikoa, eta abar, *talde-baloreak* inposatu zaizkigu, norberatasun pertsonalaren kalterako. Esparru desberdinetan, hots, familian, eskolan, kalean, erlijioan, estatuan, menperatze-sistema bat dago eta bakoitzak bere baloreak inposatzen ditu.

Ondorioz, pertsona bakoitzak ez ditu Balore Pertsonal Propioak, baizik eta pertsonak, erlazionatzen deneko taldeen arabera jarduten du. Eta aipatu esparruetan edo sistemetan nagusi diren baloreen arabera, portaera desberdinak azaltzen ditu, egoeraren eta inguruan duen jendearen arabera aldatzen direnak.

Balore pertsonalak garatzeko: nortasunarekin batera sendotzen diren zenbait jarrera modu koherentean garatu behar da, eta jarrera horiek izango dira *gaitasunak*.

Gaitasuna, ahalmena garatzea da. Giza ahalmenak giza garapenaren aukera naturalak dira.

Zentzu honetan, jarraian azaltzen diren puntuei buruz pentsatzea interesgarria iruditzen zaigu:

- Haur bakoitzak bere gaitasun guztiak garatzen ote dituen.
- Nola jakin dezakegu ahalmen guztien garapena sustatzen ote dugun.

Azken puntu honi erantzuteko, Begoña Salasek ondorengo aldagai hauek kontuan hartzea proposatzen digu:

- Generoaren analisisa.

- Gizarte-jatorria.
- Etnia-jatorria.
- Erlijio-jatorria.

Demagun, ahalmena sexualitatea dela: pertsona batek ahalmen hori honako baloreen bidez garatzen du: maitasuna, edertasuna, desira, samurtasuna, eta beste pertsona batek, berriz, honako baloreen bidez garatzen du: nagusikeria, indarra, otzantasuna, bortizkeria. Zer gertatzen da? Bi pertsonak garatuko dute sexu-ahalmena, baina kasu batean ez da jarrera bortizik azalduko, eta beste batean, berriz, bai. Ez gaude jarrera desbideratuen aurrean, baizik eta bigarren kasuan, sexu-gaitasuna garatzen da, baina kontra-balore batzuekin batera.

Puntu honetan, baloreak gaitasunen karakterizazio modura definitzen ditugu, izan ere, baloreak jarreretan zehazten dira. Haurra mugitzen den esparru orotan jarrera bat modu koherentean garatzen denean, denborak aurrera egin ahala, jarrera hori ohitura bihurtzen da, ohitura portaera eta azkenik gaitasuna.

Gure taldeak, Hezkidetzaren Mintegiko partaide den aldetik, gure eskoletako ikasleen afektibitate-gaitasuna nola garatu izango du abiapuntu ikasturte honetan.

Gure gogoeta, bizi gareneko gizarte-ingurunearen deskribapena egitetik abiatu da, eta baiezta ahal izan dugunez, gizakion arteko elkarbizitzan, osasunean, ingurunearekin dugun erlazioan, objektuekin dugun erlazioan, baliabideekin, agintzen duten irizpideekin, zerikusirik handiagoa dute “indartsuenaren legearekin” afektibitate-mailako irizpideekin baino, eta ingurune horrek guztiak ikasleen portaeretan duen eragina aztertuz, gaitasuna berriro definitzen dugu.


“Afektibitatea, pertsona orok bere buruarekin, gainontzeko pertsonekin, ingurugiroarekin, animaliekin, objektuekin, eta abar, harremanak edukitzeko duen gaitasun modura hartuta”.

Gauza ez da eskola-programa gehiegi betetzea, ezta afektibitate-gaitasuna nola garatu irakasten denbora estrarrik ematea ere (ez bada behintzat horrelakorik nahi).

Afektibitate-garapenaren programa, irakurmenarekin, idazmenarekin, edo ziklo honetako beste edozein arloarekin batera landu daiteke. Proposatzen dugun jarduera-multzoa aitzakia moduan erabil daiteke gelan eztabaida bat egiteko, *adiskidetasuna*, *auto-estimazioa*, *enpatia*, *maitasuna* eta *asetzea* eztabaidarako gaiak harturik.

2. JUSTIFIKAZIO TEORIKOA

2. JUSTIFIKAZIO TEORIKOA



Jaiotzen garenetik, gizaki guztiak kultur izakiak gara, makina bat portaera ikasi behar dugu: elikadura-ohiturak, garbitasuna, itxura, lana, aisialdia, hizkuntza, eta abar; portaera horien guztien artean aurkitzen ditugu generoaren kategoriari dagozkionak ere. Helburua hauxe da: gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak lehen mailako eta bigarren mailako ezaugarri anatomo-biologikoez haraindi daudela argi uztea.

Portaerak ikasi egiten dira, baina “nola” ikasten diren, horixe dugu teoria psikologiko baten baino gehiagoren sorburu.

2.1. GIZARTE-IKASKUNTZAREN TEORIA

Bandura-ren ustez, giza portaera gehiena behaketatik ikasten da; behaketaren bidez pertsonen euren ezagupenak eta gaitasunak areagotu ditzakete, gainontzekoek azaldutako eta erakutsitako informazioaren bidez.

“Gizarte Tipikazioa” kontzeptuak, genero-portaerei buruz kultur izaera duen agindu bat dagoela esan nahi du. Nahiz eta oinarri biologikoak ezartzen dituen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak, gizarteko zeregin gehienak ez dira desberdintasun biologikoetan oinarrituta ezartzen.

Biologiak, haurdunaldia emakumeengan uzten du, baina horrek ez du esan nahi “etxeke andre” bezala bizi behar duenik. Gizarte-ohituren sistema zabala dago (apaindurak, koloreak, hizkuntza, eta abar), eta sistema horren ondorioz, sexu-tipifikazioan eta genero-mailako bereizketan oinarrituz, sexu bakoitzeko gizabanakoei dagozkion ezaugarriak eta jarduerak mugatzen dira.

Haurtzaroan, sexuaren araberako portaera-eredu desberdinak etengabe azaltzen dira, etxetan, eskoletan, gizartean orokorrean (jolasak, ipuinak, filmak, TV). Gizonak pertsona ausart, ak-

tibo, abenturazaleak bezala aurkezten zaizkigu. Emakumeak, berriz: pasiboak, menperatuak, motiboak, adimenik gabeak, status baxuagokoak, eta abar, bezala.

Gizarte Ikaskuntzaren teoria honetan, bi fase desberdin izan ziren: alde batetik, Yale Unibertsitateko irakasle-talde bat genuen, Europara prestakuntza psikoanalitikoaren egitera etorri zena; irakasle-talde horrek Freud-en zenbait printzipio esperimentalki frogatu nahi zituen (E. Millen eta J. Delland), baina ikaskuntza-prozesua jaiotzetiko-barruko motibazioen bidez (inpultsoak) azaltzea ia ezinezkoa egin zitzaion, teoria-ereduen arteko desberdintasuna zela eta.

Bigarren fasea 50eko hamarkadatik aurrera garatu da: behaketaren bidezko ikaskuntza-teoria eta ereduak, hau da: behaketaren bidezko ikaskuntzaren ezagutza-motibazioa, giza sozializazioaren gizarte-prozesua izatera pasa zen (A. Bandura, R. H. Walters 1963).

Portaerarako bi pizgarri-motak honako hauek dira: oinarri biologikoa eta ezagutza-oinarria.

Oinarri biologikoan kanpo-faktoreek eragina dute, eta neurri handi batean, sexu-motibazioak faktore horien menpe daude; faktore hormonalek, berriz, euren eragina gutxiagotu egiten dute kultur faktoreen alde, eskala kriminalean gora egiten den heinean (Bandura, 1987).

Ezagutza-oinarriko motibatzaileei dagokienez, Bandurak honako hau dio: “etorkizuneko ondorioak sinbolikoki adieraziz, etorkizuneko emaitzak egungo gida eta portaera-motibatzaile bihurtzeko”.

Hori guztia kontuan hartuta zera ondoriozta dezakegu: pizgarri errealek bakarrik behatuz ez da portaera pizten, baizik eta pizgarri errealean inguruan egiten den aurreikuspenak pizten du portaera. Helburuak, barne-irizpideak eta autoebaluazio-erreakzioak jokoan sartzen dira.

Gizarte-ikaskuntzarekin erlazionatuta, *imitazioa* garrantzitsua da: “bizitza errealeko ereduak edo eredu sinbolikoak azaltzen dituzten emozio-mailako ekintzak, jarrerak eta erantzunak errepikatze joera, hain zuzen” (Bandura, Walters 1963).

Gizarte Ikaskuntzaren teoria honetan, ereduak garrantzi izugarria hartzen dute, eta aldi berean, errefortzu positiboetatik edo negatiboetatik libre uzten du: ereduak behatzen dituen pertsona ez da sariak edo zigorrak eraginda mugitzen; helburua ez da pertsona helduek portaera egokiak eta desagokiak zeintzuk diren adieraztea; “saria” bereganatutako portaerarengatik autoafirmazioan aurkituko dugu.

Ikaskuntza-prozesuak hiru urrats ditu.

1. Portaera-ereduak bereizten ikastea.
2. Ikaskuntzako esperientzia zehatzak egoera berrietara orokortzea.
3. Bereganatutako portaera praktikan jartzea.

Genero-portaerak behaketaren bidez ikasteari dagokionez, neskek eta mutilek 4 irizpide desberdini dagozkien ereduak imitatze joera dute, bakoitzak eredu horiek ulertzeko duen moduaren arabera:

1. Euren antza edukitzea.
2. Boterea-gizarte-estatus altua edukitzea.
3. Borondate oneko edo adiskidetzat hartzea.

4. Portaeren emaitzarengatik autosarituak sentitzea.

Ereduek aipatu irizpide guztiak ez dituztenean, azaltzen dituzten irizpideak imitatzen dira.

Irizpiderik betetzen ez den kasuetan, eredia “kontra-imitatzeko” joera dago, hau da, beste zerbaitetarako erabiltzeko joera.

“Botereari” dagokionez, bai mutilek bai neskek ere, pertsona helduak behatzean, beraien-tzat boteretsuenak direnen portaerak imitatzen dituzte; ondorioz, beste sexuko portaerak ere imitatzen dituzte, beti ere boterearen ezaugarria azaltzen bada.

Ruth Hartley-ren ustez (1916), genero-rolen garapenareko lau fase desberdin daude: *manipulazioaren-kanalizazioaren-ahozko tratamendua-jardueren aurreko* jarrerren bidezko sozialisazioa.

Hartleyek urtebetetik 5 urtera bitarteko neska eta mutilen 22 familian oinarrituta egin zuen bere azterketa:

1.) *Manipulazioa*

- Amek euren alaben itxura zaintzen dute, eta alabek euren amek “politik-femeninoak” ikusten dituztela antzematen dute.
- Amek, mutilak gehiago estimulatu dituzte ukimenaren eta ikusmenaren bidez.
- Neskek egiten dituzten keinuak eta hotsak imitatzen edo erreplikatu dituzte.
- Amak haurraren suminkortasunari ematen dion erantzuna, haurra hazten doan heinean gutxitu egiten da: gizentasun modura sailkatzen dute benetan suminkortasuna dena, izan ere mutilek erantzun txarragoa ematen diote sozializazio-prozesuari.
- Haur oso txikiengan, genero-rolak bereganatzeko orduan garrantzitsuena ez da ahozkoa ezta disziplina-mailakoa dena ere, zintesikoa dena baizik.
- Mugimenduak, gorputzaren jarrerak, eseritzeko moduak, korritzeko, salto egiteko moduak, eta abar, “sexu-tipifikazioan” maiz erabiltzen dira.

2.) *Kanalizazioa*

Haur-adinean jostailuak oso garrantzitsuak izaten dira; jostailuen bidez etorkizuneko portaerak azaltzen ikasten dute; jostailuak sexuan oinarrituta bereiztea, lanean egiten den sexu-bereizketaren pareko da, eta modu positiboan ohitura bihurtutako hori etorkizunean nahiago izango dugula kontuan hartuta, txikitatik geratuko dira bideratuta rolen banaketan izango diren zenbait desberdintasun.

3.) *Ahozko tratamendua*

Hartleyek pertsona helduen eta neska eta mutilen arteko zuzeneko komunikazioa aipatzen du, iruzkinak, zerbaiti edo norbaiti buruzko behaketak, haur-literatura, eta abar.

4.) *Jardueren aurrean jarrera*

Haurtzaroko lehen etapan, neskak eta mutilak amekin edo beste emakume batzuekin egoten dira erlazioan, baina horrek ez du esan nahi gauza berdinak ikasteko aukera bera dutenik. Kagan eta Moss ikerlariak (1960), datu-bilketan oinarritutako lan batean, neskek azaltzen zuten

menpekotasun pasiboa mutilena baino handiagoa zela ikusi zuten, eta inguruko presioari atxikitzen zioten berezitasun hori. Etxean bertan aitek eta amek garatzen dituzten jarduera desberdinen aurrean, mutilek aita eredutzat hartzea eragiten dute, baita gizarte-mailan gaitzetsi behar diren portaerei dagokienez ere. Nesken pertzepzio pasiboa, berriz, amek egoera horien guztien aurrean azaltzen duten inhibizioak dator.

Belaunaldi berrietan gero eta gehiago onartzen da etxeko lanak banatu egin behar direla, baina oraindik zailtasunak ikusten dira. Ezin ditugu ahaztu azken 30 urteotan kulturari eta ohi-turei dagokienez izan diren aldaketak, batez ere mendebaldean; ez da harritzeko, familia modernoetan, aiten eta amen artean rola aldatzea, baina belaunaldiz belaunaldi ikasitakoa ez da erraza ahazten. Bandurak eta Waltersek dioten bezala,

“Gizarte-betekizunetan izandako aldaketak nabariagoak dira gizonen kasuan, beraz, etxean bertan ohikoak ez diren aiten ereduak aurkitzeak, etxetik kanporako egokitzea zailagoa egin dezake, batez ere mutilei dagokienez”.

2.2. IKASKUNTZA KOGNITIBOA: KHOLBERG

Kholbergekin, Piageten jarraitzaile izanik, Piageten adimenaren garapenaren eredua aplikatzen du genero-rola bereganatzeko garapenaren azterketan; ikaskuntza klasikoaren eta gizarte-mailako ikaskuntzaren teorien aurrera egiten du, haurtzarotik, sexualki tifikatuta dagoen munduarekin duen erlazioan intelektualki aktiboa den rola ematean. Gizarte-munduaren ezagutza-antolamendua barneratzen dute, sexu-rolaren jarraibideei jarraiki, norberaren pentsamenduari paper aktiboa emanez, baina antolamendu hori adinarekin aldatu egiten da.

Kholbergen teoriaren funtsezko puntuak:

a) Oinarrizko sexu-norberatasunaren prozesua

- Lehenengo norberatasuna da eta ondoren sortzen dira identifikazioak; neska edo mutila izateaz ohartzean, norbera norekin identifikatzen den adierazten dugu.
- Gurasoen eragina ez da erabakiorra; sexu-rolaren portaerak sustatzen edo inhibitzen dituzte.
- Sexu-norberatasuna bereganatzeak, adinen arabera honako bilakaera hau izaten du:
 - 2. urtea: ahoz neska ala mutila den bereiztea.
 - 3. urtea: sexu-karakterizazioaren orokortzea ez da oso sistematikoa adin honetan, eta alderdi fisikoetan oinarritzen da. Sexu-mailako desberdintasunek ez dute garrantzi handirik.
 - 4. urtea: karakterizazio sistematizatua, panpinen sexua eta norberaren sexua bereizteko orduan, gehienetan asmatzen dute.

b) Sexu-norberatasunaren ziurtasuna

5-6 urte izatera iritsi baino lehen, norberaren sexu-norberatasuna ez da oso argi edukitzen; adin honetako gizabanakoek, sexu aldaketa itxura fisikoa aldatuz lor dezaketela pentsatzen dute. Piagetek adimenaren teorien frogatzen duenez, 6-7 urte arte haurrek ez dituzte masa, pisua, kopurua, eta abar bezalako kontzeptuak ondo ulertzen (plastilinarekin, likidoekin ... egingandako probak); sexu-norberatasunerako ezagutza-antolamenduak antzeko egoerak pasatzen ditu pareko adinetan.

c) *Genero-estereotipoak bereiztea*

Kholbergek egiten duen planteamenduaren arabera, ezagutza-esanahiak eta esanahi sinbolikoak ez dira desberdintasun genitalen arabera bakarrik bereizten, teoria psikoanalitikoak dioten bezala, ezta jaiotzetiko arketipoen arabera ere; ezagutza-esanahiak eta esanahi sinbolikoak pentsamendu sinboliko zehatzaren emaitza dira.

Hurrek ez dute zuzenean guraso, senide edo pertsona helduen estereotipoetan oinarrituta ikasten. Gizarte-talde eta arraza askotako hurrek boteretsu, ausart eta oldarkor ikusten dituzte euren aitak; amak, berriz, maitagarriak, menpekoak, eta abar. Konnotazio hauek ez dira derri-gorrez bat etortzen familiako ereduarekin.

“Oldarkortasunak”, mutilak sendagoak eta neskek ahulagoak direlako sinesmenari erantzuten dio.

“Boterearen” estereotipoak gorputzean du oinarria.

Hautzaroen gizarte-mailan egiten den lehenengo desberdintasuna adinean eta tamainan oinarrituta dago, eta horren ondoren etorriko da sexu-desberdintasuna.

Adin honetako pentsamendu zehatzak definitzen ditu gizarte-ezaugarriak eta portaera-ezaugarriak, gorputzari dagokionez: “gizarte-mailako boterea fisikoaren emaitza da”, mutilek eta neskek hurrek baino adin eta neurri handiagoak dituzte, aitek amek baino adin, neurri eta botere handiagoa dute.

d) *Estereotipoen balorazioa*

Ezagutza-mailan koherentzia dago norberaren eta balore-irizpideen artean. Oreka hori lortzeko, edo norbera egokitu behar zaio ontzat jotzen dugun horri, edo, bestela, ontzat jo behar dugu norberaren buruarekin bat datorren hori.

Pentsamendu zehatza garatzeko adinean, hurrek eurek dituzten balore-irizpideak pertsona guztientzat berdinak direla suposatzen dute, eta balorazio egozentriko honetan oinarrituta, euren sexu propioa onena dela pentsatzen dute; ondorioz, sexu bereko adiskideak dira “onenak”. Neskek eta mutilek desberdintasunak ikusten dituzte balorazioari dagokionez maskulinitasun eta femininitasunaren artean, eta batzuek eta besteek gehiago baloratzen dute maskulinitasuna. Neskek, beraz, atzera egiten dute aipatu “egozentrismoan”. Nahiz eta oraindik ere “ni bezalakoa dena” beraientzako onena dela pentsatzen jarraitzen duten, gainontzekoentzat ez da horrela izaten. Hala ere, aipatu “ez-egozentrismoan” aurrera egiten dute. Balore-mailako ezaugarriek, neskek dituzten lehentasunetan eragin dezakete, baina ez dute euren sexu-norberatasuna alde batera uzten.

Mutilek, ordea, emakumearen munduan ez dute paper maskulinoa jokatzeko aukerarik. Baloreen ikuspuntutik, zailagoa da mutilek euren burua identifikatzea, linealki egiten dute aurrera; neskek “balorazio txikiagoa” dute oztopo, eta euren burua identifikatzeko “helduen femininitatea” hartzen dute eredutzat. Oso gutxitan hitz egin da honetaz, baina baliteke emakumeen heldutasun psikologikoa, gizonezkoena ez bezala, ezkutuko femeninoekiko identifikazio-prozesu horretatik etortzea; gizonezkoak, berriz, euren berdinkideen taldean ondo egoten dira.

Orain arte esandako guztia ezagutza-mailako heldutasunak dakarren garapenean oinarrituta dago, eta ez horrenbeste heldutasun fisiologiko-kronologikoa.

Kholberg (1972) dioena errepikatuz, “mutilak edo neskek gizarte-munduan duen antolamendu ebolutibo-kognitiboaren ondorio dira, non sexu-rolak gorputz-ideiekin eta oinarrizko gizarte-funtzioekin erlazionatuta dauden, molde unibertsalen arabera”.

2.3. SOZIALIZAZIOA: GOGOETA PSIKOLOGIKOA

Sozializazioaren bidez sartzeko gara kulturaren mundura. Sozializatzeko modu desberdinak ikusi ditugu, sexualki tipifikatuta dagoen gizarte batean neska edo mutila izaten nola ikasten den azaltzen duten teoria desberdinak ikusi ditugu; orainoan, zer den ikasten dena eta ikasitakoaren ondorioak zeintzuk diren ikusiko dugu.

1975. urtean, Marine Lefanchen psikologoak eta G. Falconnet soziologoak, maskulinitasuna nola eraikitzen den azaltzen zuen ikerketa baten emaitza argitaratu zuten. 15-57 urte bitarteko gizonak elkarriketatu zituzten, eta elkarriketa hiru puntu desberdinetan oinarritu zuten:

- Ahalmena, boterea, edukitzea.
- Bizitza pribatua.
- Ideologia maskulinoaren prestakuntza eta ugalketa.

Haurraren heziketari dagokionez, honako hau bereizten dugu:

- Lehenengo agindua: negarrik ez egitea.
- Hobe da mutila izatea eta neskatzat hartzea lotsagarria da.
- Mutila zikina izatea ez dio axola, neskek, berriz, garbia izan behar du.
- Neskek ez dute abizenik gordetzen, mutilek, berriz, bai.

Aitei buruz hitz egitean, haur guztiek antzeko irudia dute: “urruneko autoritatea, ez dagoen gizona, diktadorea eta jauna, ahalguztiduna, oldarkor isila eta zikiratzailea”; epaitu, zigortu, erreprimitu, erabaki, debekatu, eta abar egiten du, mirestu egiten dugu, gorrotatu egiten dugu, baina bere rol bera edukitzen ikasten da.

Jostailuek eta jolasek aurretik esandakoarekin erlazio handia dute.

— *Mutientzat:*

- Bizitza militarrean, gudetan-eta oinarritutakoak, eta ez bakerako jostailuak eta jolasak.
- Teknika: garraioak, asmakuntzak, Unibertsuaren konkista ..., eta ez etxeko teknika, ezta artisautza edo apainketa ere.
- Lehiaketa: kirolak ... eta ez lankidetzajolasik.
- Zientzia: kimika, elektronika, ... eta ez magia, fantasia ...
- Abentura, ekintza, ... eta ez entzutea, harremanak izatea...

— *Neskentzat:*

- Panpinak, etxeak, bazkariak, etxeko tresna elektrikoak, eta ez mikroskopioak.
- Laborategiko elementuak, eta abar.
- Erizainen tresnak eta ez sendagileenak.
- Maitagarriak eta ez injineruak.

- Azafatak eta ez pilotuak.
- Apaintzeko jolasak ... eta ez kiroletarako materiala.

Poal Marcet-en ustez (1993), desberdintasun guztiak jaiotzetikoak diren ala ondoren bereganatu ote diren eztabaidatu gabe, sozializazioak sexuen arteko joera desberdin horiek orekatu beharko lituzke, eta ez aldentu, bi sexuak modu desberdinean hezituz.

Psikologia honen arabera, mutila jaiotzeak abantailak eta desabantailak dakartza berarekin. Jarraian, aipatzen dizkigu mutila jaiotzearen abantailak:

- Harrotasuna eta ospea.
- Aurretik dohainak dituztela aurre iritsia da.
- Askatasun handiagoa dute.
- Arau-hauste gehiago onartzen zaizkie.
- Arrakastarako estimulua.

Mutilek dituzten desabantailak, berriz, honako hauek dira:

- Eurengan itxaropenak jartzen dira (arrakasta, adorea).
- Lorpenak eta ahaleginak egiteko betebeharra.
- Beldurra eta segurtasunik eza adieraztea debekatuta dute.
- Afektibitate-mailako laguntza gutxi.
- Afektibitatea gorde egin behar dute.

Emakume jaiotzeak ez du berez abantailarik, izan ere, gutxien baloratzen den sexua da; ugalketarako zereginak egokitzen zaizkie zentzu zabalean. Desabantailen artean, “hauskortasunaren” estereotipoa aurkitzen dugu, mugimenduak eta ekintzarako esparrua mugatuta edukitzea justifikatzen dituen, eta ondorioz segurtasunik eza eta autoestimazio baxua sortzen dira.

Gizartean garrantzitsutzat jotzen den sexuko gizabanakoak gehiegi baloratzeko joera dago, baita gehiegi eskatzekoa eta gutxiegi babestekoa ere.

Gizartean bigarren mailan ikusten den sexua duten gizabanakoak, berriz, gutxiegi baloratzeko joera dago, baita gutxiegi estimulatzeko eta gehiegi babestekoa ere.

Kanpo-adierazleak barne-adierazleekin erkatuz gero, gizonezkoak barruan gehiegi babestuta daudela ikusiko dugu (sexu-zerbitzuak, etxeko zerbitzuak, eta abar), eta emakumeak, ordea, kanpoan gutxiegi babestuta daudela (lanpostua lortzeko zailtasunak, erasoak jasateko arriskua).

Poal Marcet-ek esparruak (esparru publikoa-esparru pribatua) aztertzen ditu eta lehen aipatu duguna osatzen du; horretarako honako hau dio: sexu bakoitza esparru bakar batean arrakasta lortzeko hezitzen da, esparru batean gozatzeko eta esparru batean egon nahi izateko hezitzen da; ondoren, esparruan lortutako arrakastaren arabera baloratuko du duen zoriontasuna.

Egile honentzat, sozializazioak hiru porrot dakartza berarekin:

- A) *Asetzerik eza eragiten du*: Edozein zentzutuan garrantzi gehiegi ematen zaion sozializazio-ekintza orok, asetzerik eza eragiten du, eta lortu nahi denaren aurkako ondorioak eragin ditzake.

- B) *Ez ditu bere helburuak betetzen:* Errealitateak baieztatzen digunez, gizonezko guztiak ez dira sozializazio diferentzialak nahi zukeen bezalakoak; emakumeek euren esparru pribatua baino zerbait gehiago nahi dute, nahiz eta egokitu zaien esparrutik ateratzeko oztopo handiak gainditu behar izaten dituzten.
- C) *Ez da egokitzeko egokia:* Esparruka banantzeak giza esperientzia zatitzen du, autoerrealizatorako aukerak mugatzen ditu eta norberaren asetzerik eza areagotzen du, eta ondorioz, bi sexuetakoa pertsonen artean gatazka larriak eragiten dira.

Kholberg, sexu-identifikazioa teoria kognitiboaren esparrutik azaltzen saiatu da. Abiapuntu gisa, Piageten adimenaren garapenaren eredu hartu du: adimenaren garapena da ezagutza-garapena bideratu eta zehazten duena; instintuen edo sozializazio-prozesuen heldutasunak ez du horrenbesteko garrantzirik. Horren bidez, errazago bereganatzen da genero-nortasuna, errazago ohartu generoaz, eta ondorioz, errazago jaso sexu bati zein besteari gizartean egokitzen zaizkion jarrerak eta portaerak.

Neskek eta mutilek, bakoitzak bere sexuari egokitzen zaizkion portaerak ez dituzte imitatuz ikasten, baizik eta euren sexuaren beraren autokategorizazioaren bidez, “mutila naiz” edo “neska naiz,” jabetuko dira euren mundu erreala, eta bakoitzak bere niaren parekotzat jotzen dituen pertsonekin eta gauzeekin identifikatzea lortuko du.

Ikuspuntu kognitibo honetatik, identifikazio psikosexualaren prozesu osoak hiru fase ditu:

1. Norberatasunaren ezagutza-mailako garapena eta norberatasunaren konstantzia.
2. Sexu bereko subjektuak euren roletan eta estereotipoetan imitatzeko aukeratzea.
3. Imitatuko diren ereduak atxikitzea.

Ikerketen bidez, Kholberg-ek zera baieztatu zuen: sexuaren balorazio-prozesua berdintzatzen da neskarengan zein mutilarengan, bost eta zortzi urte izatera iritsi arte; orduan, neskak bere sexua onena ez dela antzematen du. Adin honetan, bi sexuek balio edo ospe handiagoa ematen diote gizona izateari, balorazio egozentrikoa beste balorazio baterantz bideratzen da, gizarte-antolamenduan bakoitzak betetzen duen lekuan oinarritzen dena.

Hala ere, Kholberg ez da saiatzen balorazio-asimetria horri eta sexu bat besteari ginetik ikusteari buruz azalpenik ematen. Gizartearen sexu-tipikazioa normalizat jotzen den datu “objektiboa” da. Baina neskaren beraren balio-galera hori dugu jarrera baten hasiera; horrek, neska heldutasunera iristean, autoestimazio txikiagoa izatea eragingo du, bere proiektu pertsonalak gutxiago baloratzea, eta gizonezkoen proiektuekiko mirespen handiagoa azaltzea.

Bem-ek, generoaren eskemaren teoriaren barruan, eredu klasikoa hausten du, hots, maskulinitasunak eta feminitateak dimentsio bakar baten aurkako muturrak adierazten dituztelako suposamendu tradizionala alde batera uzten du, eta bi eraikuntzak independenteak izatea proposatzen du, maskulinoa eta feminoa hain zuzen, eraikuntza independentetzat eta banandutzat jotzen direnak.

Bemen ereditik aurrera, feminoa denak Psikologian berezko kontzeptua du. Bi aldaera hauetarako erabiltzen diren lanabesak kontzeptio aldebakar batetik abiatzen ziren, kontrakoen continuum baten antzera.

Bemek maskulinitateari, feminitateari eta androginiari buruz egindako ikerketan honako hau hartzen du abiapuntu gisa: gizarte konplexu batean ondo funtzionatzeko, gizabanakoak izan

behar du instrumentala eta adierazkorra (Talcott Parsons-en terminologiari jarraiki). Baina termino horiek estereotipoen arabera maskulinoztat eta femeninoztat jotzen direnez, gizonen adimen-esparruan ondo funtzionatzen ikasten dute eta emakumeek, berriz, adierazpen-esparruan. Beraz, Bemeren hipotesiaren arabera, gizabanako androginoak ez dira mugatuta egongo, adierazkorrak zein instrumentalak izan daitezke, maskulinoak zein femeninoak, eta zentzu horretan, sexualki tipifikatuta daudenak baino hobekiaz izango dira, izan ere, azken hauek portaerak eta ezaugarriak maskulinitatearen eta feminitatearen arabera ebaluatzen dituzte, kulturak sexuarentzat egokitzen jotzen ez duena alde batera utziz.

Bementzat, generoa ezagutza-mailako antolamenduaren printzipioa da, kontzeptuzko sistema, eta sistema horren bidez neskek eta mutilak generoarekin erlazionatutako informazioa prozesatzen dute, garatzen ari den generoaren eskema baten arabera. Prozedura eskematiko hori, generoak zehazten duena, tipifikazio sexuala azaltzeko oinarritzko puntua dugu.

Gure ikuspuntutik, Sandra Bemek egindako ikerketetan azpimarragarriena iruditzen zaigu, batetik, eraikuntza maskulinoa eta femeninoa elkarrengandik aske daudela aitortzea, baina, batez ere, bere androginia kontzeptua, era honetara ulertuta: gizaki orok du portaera-multzo zabala eta aberatsa adierazteko eskubidea. Ikuspuntu horretatik begiratuta, portaera oro giza mailakoa da sexuala baino lehenago, eta, beharbada, berariaz sexualak diren portaerak dira biologiko hutsak.

Gizaki batengan azaltzen den portaera-multzoak, Platonek Oturuntza lanean kontatzen duen Aristofanesen analogia gogorarazten digu: “Gizakiak bat bakarra zirenean, horregatik hain zuzen hain boteretsuak, jainkoek, bekaizkeriaz, banandu egin zituzten”. Gure ustez, Historiaren bilakaerak berriro ere eskatzen digu biltzea.

2.4. HEZKIDETZA ETA EGUNEROKO BIZITZA¹

Diskriminatutako jakiteak

Eskola mistoak, oraindik ere lehenetsua ematen die bizitza publikorako erabilgarriak diren jakiteei, eta irakaskuntza formaletik kanpo uzten ditu bizitza pribaturako jakiteak, hain zuzen ere, betidanik emakumeari egokitu zaion esparrurakoak.

Eguneroko bizitzako autonomia, afektuak, elkarbizitza, elkartasuna eta pertsonak zaintzea, bigarren mailako jakitetzat jotzen dira.

Honen aurrean, hezkidetza-irakaskuntza anitza da: ez du munduari buruz ikuspegi bakarrik eskaintzen, ezta portaeren unibertsoan harreman hierarkikorik ezartzen ere; aitzitik, garrantzi bera ematen dio, neskek bizitza publikoan mugitzeko behar dituzten jakiteak ikasteari, eta mutilak bizitza pribatuko esparru desberdinetan askatasunez eta elkartasuna adieraziz mugitzeko beharrezkoak dituzten jakiteak ikasteari.

Tradiziotik hezkidetzara

Bai irakaskuntza tradizionala bai hezkidetza ere, ikasleak behar dituen esperientziak eskaintzen saiatuko dira, hartara ikasleak honako jarduerak hauek garatu ahal izateko:

¹ Genoveva Sastre.

- Gizarteko oinarri zientifikoak, artistikoak eta kultur mailakoak aztertzea.
- Norberak bere ezagutza-mailako afektibitate-mailako eta gizarte-mailako baliabideak garatzea, zeintzuk aldi berean, ingurune funtzioen zergatia ulertzen lagunduko dioten.

Irakaskuntza konbentzionalak diotenaren arabera, ingurune fisikoa aztertzea dugu ezagutza-mailako gaitasunak garatzeko esparru egokiena, eta afektibitate-harremanak aztertzea ez du aipatu helburua lortzeko esparru egokitzat jotzen.

Hezkidetzak, adimenaren eta afektibitatearen arteko aurkakotasuna gainditzen du, eta sentimenduak eta pertsonen arteko harremanak, ezagutza-mailako eskemak garatzeko esparru egokitzat jotzen ditu, emaitza onak emango dituztenak; gainera, sentimenduak eta pertsonen arteko harremanak aztertzea derrigorrezkotzat jotzen du, ikasleen eguneroko bizitza garatzen deneko fenomeno fisikoak eta giza fenomenoak mugatzeko eta elkarren artean erlazionatzeko.

Ingurune fisikoaren azterketa testuingurutik kanpo egiteak, ez digu laguntzen beste herrietako gizon eta emakumeak ulertzen, ezta natur aberastasuna zaintzen eta banatzen ere.

3. EGUNERO EGOERA ZEHATZAK BEHATZEA

3. EGUNERO EGOERA ZEHATZAK BEHATZEA

Lan egiten duguneko ikastetxe desberdinetan ikus ahal izan dugunez, sarritan azaltzen dira neska eta mutilen arteko, haurtzaroaren eta pertsona helduen arteko, ikasleen eta objektu materialen arteko komunikaziorako arazoak, baita jarrera-mailako, portaera-mailako, eta abar arazoak ere.

Honako hau ikusi ahal izan dugu:

- Erasoak eta tratu txarrak: bai fisikoak bai ahozkoak ere.
- Errespetu falta.
- Txantajeak (pertsonak babestea, sariak).
- Mehatxuak.
- Altzariak eta materiala puskatzea.

Honen aurrean, afektibitate-mailako hezkuntza lortzeko, honako helburu banandu hauek proposatzen ditugu.

3.1. AFEKTIBITATE-HEZKIDETZAKO HEZKUNTZARAKO HELBURU BANANDUAK

— *Mutilak:*

- Amorrua kontrolatzea, hartara gelako, jolas-tokiko objektuak ez apurtzeko, eta abar.
- Berdinkideekiko afektibitate-gaitasuna desblokeatzea (lagunak, ...).
- Pertsonetikiko, naturarekiko, objektuekiko, afektua modu positiboan adieraztea.
- Desberdinak direnekiko errespetua azaltzea (ikaskuntzarako erritmoa dela, sexua dela, arraza dela...), inor baztertu gabe.
- Txanda uzten jakitea eta kirolean partehartzea baloratzea, eta abar.
- Sentimenduen adierazpena baloratzea.
- Pazientzia eta entzuten jakitea bezalako gaitasunak garatzea.
- Eguneroko egoeretan nork bere burua arduradun modura ikustea.

— *Neskak:*

- Norberaren autoestimazioaren aurkako erasoan aurrean autonomiaz defendatzea (nork bere ikuspuntuak defendatzea, ikuspuntu horiek alde batera utzi gabe). Gonak altxatzen dizkietenean, nahi ez duten musu bat ematen dietenean, eta abar.

- Gustura ez daudela modu konstruktiboan adieraztea.
- Edozein egoeratan aurre hartzea eta protagonista izatea.
- Norberari dagokionez, erantzukizunak bere gain hartzen jakitea.

3.2. MATERIALGINTZA

Hasiera Zikloan afektibitatea garatzeko aurkeztu den materiala.

- *Indartsua eta ez fia* ipuina.
- Sketch-ak.
- Sentimenduak adierazteko jolasak.
- Nork bere burua indartzeko jolasak.
- Konfiantza lortzeko jolasak.
- Komunikazioa lantzeko jolasak.

4. LANERAKO PROPOSAMENAK

4. LANERAKO PROPOSAMENAK

- Ipuin tradizionalen azterketa.
- *Indartsua eta ezitia* ipuina.
- Sentimenduak adierazteko jolasak.
- Nork bere burua indartzeko jolasak.
- Konfiantza lortzeko jolasak.
- Komunikazioa lantzeko jolasak.

4.1. IPUIN TRADIZIONALEN AZTERKETA

Haur-kontakizunetan, orokorrean aurkezten zaigun familia-eredua familia nuklearra da, aitak, amak eta haur gutxik osatzen dutena. Zenbait kasutan, beste zenbait senide ere azaltzen dira, baina bigarren maila batean aurkezten zaizkigu.

Familia, beti ondo konpontzen den eta tentsiorik bizi ez duen giza talde modura aurkezten zaigu.

Amaren papera beti etxe barrura mugatzen da. Bere lana etxea eta familia zaintzea da. Beti ari da lanean, eta ez da inoiz nekatzen, ez du inoiz atsedunik hartzen edo ez ditu inoiz bere burua asetzeko zereginak egiten.

Familia-buru modura aita aurkezten zaigu: aitarengana jotzen dute senide guztiek informazio bila, aholkua eskatzera, dirua eskatzera... Etxetik kanpora berak egiten du lan eta familia osoa mantentzeko erantzukizuna berak du. Etxean, amaren kasuan ez bezala, beti deskantsatu egiten du. Inoiz zerbait egiten badu, “gizonezkoen” zereginak izaten dira, hala nola argia konpondu, iltze bat jarri, eta abar.

Neska eta mutilen zereginei dagokienez, jada txikitatik sexuaren arabera rol desberdinak egokitzen zaizkie. Neskak, “emazte-ama-etxeko andre” gisa bete behar duen papera ikasteari ekiten dio, amari etxeko lanetan lagunduz eta anai-arreba txikiagoei lagunduz. Mutilak, berriz, ez du etxeko lanetan lagundu behar; jolastu besterik ez du egingo eta etorkizunean beteko duen lanbideari buruzko ezagupenak bereganatu.

Lana

Zentzu honetan, sexuan oinarrituta egiten diren desberdintasunak izugarriak dira. Lan maskulinoak (ustez maskulinoz jotzen direnak) gehiago baloratzen dira, eta lan femeninoak, aitzitik, oso mugatuta daude.

Jarrera honen bidez, badirudi mutilak, etorkizunean egitea gustatuko litzaiokeen lanbideari buruz pentsaraztea lortu nahi dela, eta horrez gain, badirudi neskarekin gauza bera egitea ez dela beharrezkoa, baizik eta neska, emazte-ama modura beteko duen lanera bideratu behar dela.

Aisialdia

Atal honetan, pertsonaiek sarriago garatzen duten jarduera jolasa da, baina hala ere, beste puntuetan aipatu ditugun desberdintasunak hemen ere errepikatzen dira. Mutilen eta nesken jolasak nabarmen desberdintzen dira. Ipuin tradizioaletan, mutilentzako makina bat jolas azaltzen da. Neskak, berriz, gehienetan panpinekin eta etxeko andrearenak egiten jolasten dira.

Neskak eta mutilak batera jolasten diren kasuetan, beti mutila dugu aurrea hartzen duena: neskari zuhaitzera igotzen laguntzen dio, salto egiten laguntzen dio, eta abar.

Eskola

Nahiz eta haur-kontakizunetan oso gutxitan aipatzen den eskola, badaude zenbait gauza azpimarragarri, hala nola, maisu zein andereñoaren papera beti sexu femeninoak betetzen duela.

Zenbait ipuinetan, gainera, mutilen eta nesken eskola-jardueren artean desberdintasunak ikusi ahal izan ditugu, adibidez, neskek josi egiten dute eta mutilek, ordea, irakurri.

Mutilentzako ezaugarriak, neskentzako ezaugarriak

Oinarri modura mutilaren eta neskaren sozializazioan rola ereduak osagarri garrantzitsua direla hartuta, neskak eta mutilak bere sexu-rola bereganatzeko orduan, sexu bakoitzari atxikitzen zaizkion ezaugarriak bildu ditugu, jarraian azaltzen den koadroan era honetara antolatuta: gizon-emakume helduak, mutila-neska.

Mutila prestatzen ari den izaki modura aurkezten zaigu, helduaren estatusa bereganatzera zuzentzen dena, aipatu ditugun ezaugarrien arabera. Neskari behin eta berriro azpimarratzen zaio haur-izaera bizitza osoan izango duela, agerian edo ez hain agerian. Neskaren prestakuntza ez da etorkizuneko bilakaera profesionalera bideratzen, izan ere, emakumearen kasuan ez da beharrezkotzat jotzen.

EMAKUME HELDUA	GIZON HELDUA
<ul style="list-style-type: none">• Pasiboa• Otzana eta esanekoa• Eroapen handikoa eta apala• Menpekoea• Ama• Sentibera eta hunkibera• Etxeko lanak bakarrik• Samurra• "Feminitatea"	<ul style="list-style-type: none">• Gizartearen barruan elementu aktiboa• Esparru guztietan autoritate gorena• Indarra eta segurtasuna• Ekimena• Babeslea• Askea• Intelektuala• Orekatua eta sentiberatasun gutxikoa• Zorrotza

<p>NESKA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lotsatia, segurtasun gutxikoa • Beldurtia, babes behar du • Erraz mindu daitekeena eta sentikorra • Ama izateko irakasten zaio (panpinak, kapota, ...) • Sedentarioa, mugimendurik gabeko eta normalean etxean bertan jolasteko jolasak • Apetatsuagoa 	<p>MUTILA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jakin-mina eta gauzak asmatzeko gogoia • Neskekiko harremanetan nagusi da • Indar fisikoa baloratzen zaio (mugimendua eskatzen duten jarduerak) • Buru-argitasuna eta trebetasuna • Ezagupenei dagokienez, nagusitasuna • Ausardia
---	--

Mutila: Ez zaio itxura zaintzeko eskatzen (ez du zertan txukuna izanik, arropa zikina eraman dezake, eta abar).

Ondorioak

Argi ikusten dugunez, haur-kontakizunek sexu-mailako diskriminazioa eta hierarkizazioa indartzen jarraitzen dute, bai familiaren barruan bai gizartearen barruan ere.

Pertsonaren garapen integrala kontuan hartuta hezitzaile izan nahi badugu, oraintxe dugu aukera, eskolarako materiala aukeratzean aurreiritzi sexistak azaltzen ez dituen materiala aukeratuaz.

4.2. INDARTSUA ETA EZTIA IPUINA

Kaixo! Nire izena Miren da. Potolatxoa naiz, eta garbitu berri nago; oso xalada naizela esaten didate, bai, beti.

Orain askaria jatera noa, amaren dendara. Etorri nirekin! Oso gozoki gozoak dauzka dendan.

Baina, zer ikusi dut? Ander, nire laguna! Amarekin dago, sukaldean. Ateko zirrikitutik ikusten ditut haren eskuak, zuringoz zurituta, sekulako gerezi-tarta handia airean hartuta.

Ander, ai Ander! Nire lagun argal eta garritsua da; mutiko polit-polita dela esaten diote guztiek.

Non eta nola ezagutu nuen kontatuko dizuet.

Arratsalde batean gertatu zen; baserrian bizi den aitona ikustera, etxetik irten nintzenean. Kolore askoko kapela neramen beroa larria zelako.

Zuhaitzak distiraz, lorez beterik; eta zerua inoiz baino urdinago: itsasoak, goitik zintziliek etzanda, zeruaren lekua hartu izan balu legez.

Bide erdian, iturri ondoan, dardarka hasi ziren zuhaitzetako orriak.

Eta aurpegi betean sentitu nuen haizea; zerura begiratu, eta kolorez aldatzen ikusi nuen; zurbil jarri zen, gaixo itxuran.

Artean ez ziren orriak bakarrik, zuhaitzetako loreak ere dardaraka ari ziren, eta, erroitik urrututa, hega-dantzan hasi ziren nire buru gainean.

Soinekora eraman behar zidan haizeak. Bizkarrean sentitzen nuen haizearen indarra, ikatzezkoak ziruditen hodeietara eraman nahiko banindu edo.

Ahotik sartu zitzaidan haizea, eta behelaino hezearen bustia dastatu nuen. Ikaratu egin nintzen.

Baina, ahots sakan eta latz bat laguntza eske entzun nuenean, arineketan aldegitia pentsatu nuen; hala ere, inguruan bila hasi, eta zuhaitz zahar bat baino ez nuen aurkitu: negarrez, haize eroaren kontra alperriko borrokan zihardula. Lurretik atera behar zuela zirudien.

Orduan, aitonaren esku handi eta zuhaitz-esku zaintsuak etorri zitzaizkidan gogora, eta nire indar guztiekin besarkatu nuen zuhaitz zaharra nire esku txiki eta zuhaitz-esku zaintsuekin.

Batera, aitonaren ahots gorri eta ezitia gogoratu nuen, eta nire ahots busti eta eztiak lasaitu nuen zuhaitza, eta bihotza ikaraz izaten nuenean aitonak esaten zizkidan opil-berbak esan nizkion.

Horrela, heldu-heldu eginda, ekaitzaren enbata-astinduei aurre egin, eta, lehertuta, loak hartu gintuen.

Iratzartu nintzenean, sabela berotzen ari zitzaidan eguzkia, eta zuhaitz tantai baten geriza zebilen dantzan nire ileetan, txirikorda-jokoetan.

Zuhaitz zaharra gogoratu eta bila eta bila hasi nintzaion, baina ez zegoen han.

Izei adar berde eta gazte bat baino ez nuen aurkitu nire besoetan, eta, hala, nire abentuaren zati bat amets hutsa izan zela jakin nuen; eta bakarrik gaintu nuela, neuk, ekaitzaren baldurra; indartsu eta ezti igarri nion neure buruari; eta aitonari esatera joan nintzaion arineketan.

Orduan ezagutu nuen Ander. Iturri ondoan aurkitu nuen, izei adar berde eta gazte bat besoetan zuela, amak neba ttikia besoetan hartzen duen moduan.

Goizean, sustraiak eta landareak batzera joan zen Ander mendira.

Eta esan zidan, bera, zakutoa beteta, etxera pozik zetorrela, egarriak jo, eta iturrira hurbildu zela, ura edateko.

Une hartan, suzko tximista bat ikusi zuela, eta gau beltza bezalakoak zirela hodeiak; eta tximista hark, suarekin, kiskaldu egin zituela hodeiak, eta mendia zulatu.

Gero trumoiak entzun zuen, eta burrunba-hotsez urdail-barruak lehertu zizkion harkaitzari.

Haizeak, bapatean, zakutoa atera zion bizkarretik, eta berak batutako arbel eta landareak oihaneko orbel eta landarekin nahasi zizkion, horma sendo lodi bat eginez.

Ahotik sartu zitzaion haizea, eta lurraren latz lehorra dastatu zuen.

Ikaratuta, geldirik egotea erabaki bazuen ere, negarrez ari zen ume baten inkesak entzun zituenean, bila joan zitzaion azkar; eta lurrean luze-zabal etzanda aurkitu zuen, galduta eta izututa.

Amaren esku handi eta zuhaitz-esku zaintsuak etorri zitzaizkion gogora, eta indar guztiekin oratu zion haurrari, bere esku txiki eta zuhaitz-esku zaintsuekin.

Amaren ahots gorri eta ezitia gogoratu zuen, eta bere ahots heze eta eztiak lasaitu zuen umea; eta Anderrek bihotza ikaraz izaten zuenean amak esaten zizkion opil-berdak, esan zizkion berak ere.

Hala, heldu-heldu eginda, ekaitzaren enbata-astinduei aurre egin, eta, lehertuta, loak hartu zituen.

Ander aurkitu nuenean, lo zegoen, baina han ez zegoen umerik, Anderren besoetan.

Iratzartu zenean, ume bila hasi zen, baina izei adar berde eta gazte bat baino ez zuen aurkitu; eta ni, han, berari geribra, irribarrez, potolatzo eta zorionsu.

Bere istorioa entzun ondoren, neurea kontatu nion, eta bere abentura ametsa izan behar zela azaldu nion.

Eta orduan jakin zuen bakarrik gairitu zuela, berak, ekaitzaren beldurra: ezti eta indartsu igarri zion bere buruari.

Artean, izei adar berde eta gazteak astindu genituen, barreka eta saltoka.

Ordutik aurrera Anderrek landareak eta loreak zaintzen erakutsi dit, lehen zakarrez eta lur lehorrez itota egoten ziren parajeetan jartzeko, eta inguru guztietan zabaldu nahi dugu landare eta lore usaina.

Nik opilak eta pastelak egiten erakutsi diot, eta amari laguntzen diogu biok dendan.

Eta amets egiten hasten garenean, animalia galduak babesteko lekuak atontzen ditugu.

Orain biok dakigu pastelak egin eta loreak landatzen; baina, Anderrek ez daki zuhaitz bat landatu diodala: oparitan eman nahi diot, handi eta indartsu egin delako; eta nik ez dakit, baina ustez hola izango da, honantza dakarren gerezi-tarta bikain eta gozo hori, zuringo esku zuriekin egin eta amaitu berria, niretzat izango da, opari, bera bezain indartsu eta eztia naizelako: bere neska lagunik onena.

4.3. SENTIMENDUAK ADIERAZTEKO JOLASAK

HELBURUAK

Adiskidetasunaren eta autoestimazioaren inguruan jarrera positiboak sustatzea (bai neskek eta bai mutilek ere, euren kaxa gairitzen dute beldurra).

Antzeko ametsak izatean, *enpatiazko, maitasunezko eta asetasunezko* sentimenduak sustatzea.

1. ariketa: zera pentsatzen dut ...

- Testua irakurtzea eta iruzkina egitea. Nolakoa da neska? Nolakoa da mutila? Zergatik?
- Nola doaz jantzita? Zer da gehien gustatu zaizuena...?
- Garapena: gelan dauden neska-mutil adina txartel egin behar ditugu, kolorezkoak; txartel bakoitzean hitz bat azalduko da.

gizena

argala

txikia

eztia

garbia

zikina

handia

sendoa

Bakoitzak txartel bat edukiko du, ipuineko neskekin edo mutilekin erlazionatu beharko duena, egindako aukera zergatik egin duen azalduz.

2. ariketa: “Mutil” hitzaren ordez, “neska” hitza jarriko dugu

Taldean jarraian azaltzen denari buruzko iruzkina egin

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Barrerik egin al dugu? Zergatik?
- Zure kasuan, nork egiten ditu ipuinean egiten diren gauzak?
- Garapena: Taldean edo banaka, irakasleak ipuina zatika irakurriko du; jarraian, ikasleek “mutil” hitzaren ordez, “neska” hitza erabiliko dute, esaldia errepikatuta.

3. ariketa: nork egiten du ...

Lehenengo ariketan bezalaxe, txartel bana emango zaie; bertan, ipuinean egiten diren jardueretako bat egongo da idatzita; ondoren, jarduera horiek neskarekin edo mutilarekin erlazionatuko dituzte.

Garapena: berdina.

4. ariketa: eta zuk, nola jolasten duzu? eta zuk, zertan jolasten duzu?

Ikasle bakoitzak bi multzo egingo ditu: bat ipuinean azaltzen diren objektuekin eta bestea erabiltzen dituzten jolasekin. Ondoren, bi taldeen artean erlazioak ezarriko dituzte.

- Zergatik aukeratu dute erlazio hori?
- Neskentzako diren jolasak edo jostailuak, eta mutilentzako direnak al daude?
- Normalean, zein jostailu-mota erabiltzen dugu?

5. ariketa: egin ditzagun eragiketak

Matematikako eragiketen adibide berriak jarri.

- Taldean, matematikako eragiketak asmatuko dituzte.
- Eragiketak jendaurrean azalduko eta arrazoituko dituzte.

6. ariketa: diotenez ...

- Nola erabiltzen dugu hizkuntza?
- Hitz egiteko eta idazteko orduan, ba al dago desberdintasunik gizonen eta emakumeen artean?
- Zenbait esaldi pertsonaia jakin batzuen ahotan jarriko ditugu, esaldi horien erabilerari buruzko gogoeta egiteko.
- Arbelean 4 aurpegi marraztuko dira:

Neska

Mutila

Ama

Aitona

- Talde bakoitzak esaldi bat pentsatu eta pertsonaia bakoitzari jarri beharko dio.
- Taldeak esaldia eztabaidatu eta aukeratu ondoren, esaldia arbelean, pertsonaiaren azpian jarriko du.

7. ariketa: kazetaria

ikusi dugu

ondo deritzot

gaizki deritzot

Jolas-garaian bikoteka antolatuko gara, honako hau behatzeko:

- Zertan jolasten dute mutilek, eta zertan neskek?
- Zeri buruz hitz egiten dute mutilek?
- Zeri buruz hitz egiten dute neskek?
- Zenbat leku betetzen dute mutilek?
- Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten dira ala banandurik?

8. ariketa: ... buruz hitz egin dezagun

Txotxongiloekin, ipuinean azaltzen diren egoera desberdinak antzeztuko ditugu, ikasleek asmatutako elkarrizketen bidez.

AURPEGIAK: JARDUERAK

1. Sentimenduak adieraztea

Estrategia: eguneroko tentsioak eta arazoak eguneko gai bihurtu behar ditugu.

Arazo errealak:

- Minduta egotea.
- Baztertuta sentitzea.
- Inbidiak.
- Arazoak: (borrokak ... isekak).

Ikasleak biribilean eseriko dira, eta taldeko partaide bakoitzaren izena esango dute; ondoren, zein aldarte duten esango dute; 1etik 10era bitartean egingo da puntuazioa: 1. Oso goibel, 2. Goibel, 3. Larrituta, 4. Haserre, 5. Nekatuta 6.

Puntuazio baxua lortzen bada, beste pertsona batek egingo ditu galderak.

Nork esan du nola sentitzen zaren?

2. Lankidetzaren mota bat

- Taldean lan egingo da eta buruhausgarri bat egin; isilean egin behar da lan, eta ezin da keinurik egin.
- Formulario batean oharrak hartuko dira: nor da lider, nor antolatzaile, nork egiten ditu tontakeriak, nork eteten du jarduera, eta abar.
- Jarduera amaitutakoan: jendaurrean azaldu eta jarduera garatu den bitartean izandako adostasunak eta desadostasunak aztertuko dira.


Gelako gutunontzia.

Helburua: kezkak eta arazoak adieraztea, hartara gela osoak horiei buruz hitz egiteko eta irtenbideak bilatzeko.

Sentimenduen kubo

Kuboa botatzean ateratzen den aurpegiaren arabera, ikasleek aurpegiak adierazten duen sentimendua sentitu zuteneko egoera bat deskribatu behar dute.

Ariketa honek sentimenduak hitzekin erlazionatzen laguntzen die, eta aldi berean, sentimendu-mota hori duten bakarrak ez direla ikusten dute, eta enpatia garatzeko aukera dute.



Nola sentitzen zara?



ase



goibel



axolagabe



errudun



minduta



beldurrez



bekaizti



oso haserre



oldarkor



aspertuta



urduri

4.4. NORK BERE BURUA INDARTZEKO JOLASAK

A) ESKULTURAK

— Definizioa.

Bikoteka, gorputzarekin eskulturak egin behar dira.

- Helburua.
Sormenezko adierazpena lortzeko, komunikazioa/lankidetzaz lortzea.
Nor bere gorputzaz ohartzen laguntzea.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ... 8-9 urtetik aurrera.
- Aginduak.
Jolasa isilean garatu behar da.
- Garapena.
Bikoteka jolasten da; bikoteko partaide bat izango da modeloa eta besteak eskultura egingo dio lagunari. Modelo-lana egiten duenak, besoak, hankak, gorputza, eta abar mugitzen utziko du, eskultura egiteko. Komunikazioa hitzik gabea izango da. Eskultura egin ondoren, rolak aldatuko dituzte.
- Ebaluazioa.
Lehenengo bikoteka, bakoitzak sentitu duena adieraziz, zer egin nahi izan duen, nolakoa izan den komunikazioa, eta abar. Gero taldean egin daiteke.

B) *Ni ... IZANGO BANINTZ*

- Definizioa.
Ikasle bakoitzak, bere burua ondoen zerekin identifikatzen duen adierazi behar du eta datu horren arabera, taldeak pertsona guztiak ezagutu behar ditu.
- Helburuak.
Taldean parte hartzen duten pertsonak ezagutzen eta euren burua indartzen laguntzea.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ... 8 urtetik aurrera.
- Materiala.
Pertsona bakoitzeko txartel bat. Lapitza-edo (zerekin idatzi). Txintxetak eta oholak/paretak.
- Aginduak.
Bakoitzak bere txartela beteko du isilean, gutxi gorabehera 5 minutuan.
- Garapena.
Txartelak banatu behar dira; txarteletan erantzun behar diren zenbait esaldi azaltzen dira, hala nola:
Ni autoa izango banintz, ... izango nintzateke; ni lekuren bat izango banintz, izango nintzateke; ni musika izango banintz, ... izango nintzateke; eta abar.
Amaitzean, kartak bildu, nahastu eta berriro banatuko dira; bakoitzak eta bata bestearen atzetik, egokitu zaion txartela ozenki irakurriko du. Taldeak txartela nork idatzi duen asmatu behar du, eta, behar izanez gero, eztabaidatu. Nork idatzi duen asmatu ondoren, txartela hartu, izena jarri eta oholean edo paretan jarriko da.

— Ebaluazioa.

Aukerakoa. Ezaugarri zehatz batekin identifikatzeko izandako zailtasunen inguruan izan daiteke edo bikoteka elkarrizketatu daiteke, proposamen hauetan oinarrituta, parekoak zu zein zaren pentsatzen duen, eta abar jakiteko.

— Oharrak.

Jolas hau egokiagoa da taldeko partaideak gehiegi ezagutzen ez badira, nahiz eta beste-
la ere pertsona bakoitzak lagun bat aukeratu dezakeen, eta ezer esan gabe, honako galde-
ra hauei erantzun: "... izango banintz, .. zer izango nintzateke?", eta behar bada ezuste-
koren batekin egingo dugu topo.

Esaldiak beste batzuk ere izan daitezke, taldea nolakoa den eta partaideak zein adineta-
koak diren.

C) *ESPIRALA*

— Definizioa.

Talde osoak "kiribilean batzen" joan behar du, ahalik eta estuen.

— Helburuak.

Taldeko sentimendua indartzea, parte hartzen dutenenganako harrera eta harremana in-
dartzeari. Mugimenduen koordinazioa.

— Partehartzaileak.

Taldea, gela, ... 7 urtetik aurrera.

— Aginduak.

Mugimendu eztiak eta ez oso azkarrak. Ez da gehiegi estutu behar.

— Garapena.

Taldeak kate luzea osatuko du, elkarri eskuak emanez. Mutur batean dagoen laguna bere
buruaren inguruan biraka hasiko da, eta bitartean, kateko gainontzekoek kontrako nora-
bidean emango dute bira. Horrela, talde osoa besarkada estu batean lotuta geratu arte.

— Ebaluazioa.

Pertsona bakoitza jolasean nola sentitu den eta taldea nola sentitu duen baloratzea, espi-
ralean izandako komunikazioa baloratzea (espazio fisikorik ezaren ondorioz sortutako
egoerak, mugimenduak egiteko erabakiak hartzea, eta abar).

D) *AFEKTUAK HITZIK GABE ADIERAZTEA*

— Definizioa.

Talde osoak lagun bati sentimendu positiboak adieraztea.

— Helburuak.

Ahozkoa ez den adierazpenaren bidez, taldean onarpen-sentimendua adieraztea.

— Partehartzaileak.

Taldea, gela, ... 4-5 urtetik aurrera.

- Materiala.
Begiak estaltzeko zerbait.
- Aginduak.
Jolasa isilean egingo da.
- Garapena.
Partaide bat, begiak estalita dituela, erdian jarriko da eta gainontzeko partaideak bere inguruan biribilean. Inguruan dauden partaideak erdiko lagunarengana hurbiltzen joango dira, eta ahozkoa ez den moduan sentimenduak adieraziko dizkiote, nahi duten bezala, 4-5 minutuan. Ondoren, erdian dagoen laguna aldatu egingo da, nahi duten guztiek parte hartu arte.
- Ebaluazioa.
Taldearen afektu-mailako esperientzia hau oso gutxitan egiten da eta oso garrantzitsua da. Ebaluazioa pertsona bakoitzak zer sentitu duen adierazteko beharrezkoa izan daiteke, baina eztabaida batek ez du lagunduko, eta gainera, sentimenduak desagertarazi ditzake. Neska eta mutil txikiekin denbora gehiegizkoa izan daiteke.

4.5. KONFIANTZA LORTZEKO JOLASAK

A) *ITSUAURREKOA*

- Definizioa.
Begiak estalita dituen lagun bat gidatzea.
- Helburuak.
Lankidetzazko izateko konfiantza nahikoa lortzen da.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ... 6 urtetik aurrera.
- Materiala.
Begiak estaltzeko zapiak edo bendak.
- Aginduak.
 - Ariketa osoa egiten den bitartean, isiltasuna.
 - Ibilbidea ez da itsuak oztopoak gainditzeko lehiaketa izango, esperientzia berriak izateko bidea baizik.
 - Erabil dezagun irudimena (demagun: zarata desberdinen aurrean jartzea itsua, une batez bakarrik uztea, ibilbidean zehar objektuak ezagutaraztea, eta abar).
 - Bakoitzak bere barruan bizi dituen sentimenduak igarri behar ditu, baita bere bikoteak bizi dituenak ere, antzematen dituen neurrian, noski.

B) *HAIZEA ETA ZUHAITZA*

- Definizioa.
Lagun bat zirkuluaren erdian jarriko da, eta lagun batetik bestera balantzaka ibiliko da, haizeak kulunkatutako adarra bailitzan.

- Helburuak.
Nork bere buruarengan eta taldean duen konfiantza indartzea. Beldurrak alde batera uztea.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ... 5 urtetik aurrera, 5-7 lagun bitarteko azpitaldetan banatuta.
- Aginduak.
Talde txikiak antolatu behar dira. Erdian dagoen laguna zutik egongo da. Gainontzeko lagunek eztxiki bultzatuko dute. Jolasa ahalik eta isiltasun handiengan egingo dugu.
- Garapena.
Parte hartzen duen laguna erdian jarriko da eta begiak itxiko ditu. Besoak luze eduki behar ditu eta gorputza zuzen, ez erortzeko. Taldeko gainontzeko lagunek, zirkulua osatzen dutenak, alde batetik bestera bultzatuko dute. Ariketaren amaieran garrantzitsua da erdiko laguna berriro ere hasierako posizioan jartzea, begiak ireki baino lehen.
- Ebaluazioa.
Garrantzitsua da bakoitzak nola sentitu den esatea, bere beldurrak adieraztea, eta abar.
- Oharrak.
Konfiantza lortzen den neurrian, zirkulua osatzen duten pertsonak urruntzen hasi daitezke, baita belauniko jarri edo eskuak eta hankak barrurantz dituztela eseri ere.

C) P10-P10

- Definizioa.
Talde osoak harreman sendoa lortzea da helburua, ama oiloa edo aita oilarra bilatuz.
- Helburua.
Taldeari lasaitzen laguntzea eta taldeko konfiantza eta harremana indartzea.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ... 7 urtetik aurrera.
- Aginduak.
Taldeko lagun guztiek, ama oiloa edo aita oilarra izan ezik, begiak itxita dituztelarik pio-pio egin behar dute.
- Garapena.
Animatzailearen papera betetzen duen pertsonak beste bati “zu ama oiloa edo aita oilarra” zara esango dio. Partehartzaile guztiak elkarren artean nahasten hasiko dira, begiak itxita dituztelarik. Bakoitzak beste baten eskua bilatuko du, eskua hartu, estutu eta “pio-pio?” galdetuko dio. Beste pertsonak “pio-pio?” galdetzen badiu, eskua askatu eta bilatzen eta galdetzen jarraituko du; oilarrak eta oiloak, ordea, ez, denbora guztian isilik egongo baitira. Pertsona batek erantzunik jasotzen ez duenean, badaki oilarra edo oiloa aurkitu duela eta eskutik helduta eta isilik geratuko da. Inork erantzun modura isiltasuna jasotzen badu, taldeko partaide izatera pasatuko da. Horrela egingo da partehartzaile guztiak elkartu arte.

- Oharrak.
Leku zabalean egiten bada, oztopo guztiak kenduko ditugu, hartara erortzeko beldurrik gabe ibili ahal izateko, konfiantza osoz.

D) *AURRERANTZ PULUNPATZEA*

- Definizioa.
Taldeko gainontzeko lagunen besoetara nor bere burua botatzea.
- Helburua.
Talde barruko konfiantza indartzea, taldeak eusten zaituela sentitzea, lankidetzeta eta mugimenduen koordinazioa indartzea.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela,... 6 urtetik aurrera.
- Aginduak.
Bi ilaratan jarriko dira, bata bestearen parean, besaurretatik helduz (edota besoak luzatuta, esku-azpiak gorantz dituztela, hartara, eskuen artean pareko ilarako pertsona baten eskuren bat egoteko). Isiltasun osoa. Pulunpatzen den pertsonak, besoak aurrerantz jarrita dituela egin behar du. Kontuz ibili betaurreko, ordulari eta eskuetan edo eskumuturretan eramaten diren gauzekin.
- Garapena.
Taldeko norbait, boluntario, taldetik hamabi bat metrora jarri, abiada hartu eta ilaretako bikoteen besaurretan “pulunpatuko” da (uretara salto egingo balu bezala); orduan, taldeak aurrera egiten lagunduko dio, besoz beso saltaraziz. Animatzailea ilararen amaieran jarriko da, komeni den moduan hartzeko. Salto egin duen pertsona ilararen amaieran jarriko da, eta berriro hasiko da jolasa.
- Ebaluazioa.
Pertsona bakoitzari nola sentitu den, zer esperimintatu duen, eta abar galdetuko zaio.

4.6. KOMUNIKAZIOA LANTZEKO JOLASAK

A) *OINEKIN HITZ EGINEZ*

- Definizioa.
Oinekin bata bestea ukituz komunikatzea.
- Helburua.
Parte hartzen duten pertsonen artean kontaktu fisikoa eta komunikazioa erraztea, ondo pasaz eta ez ohikoa den modu batean.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ... 4-5 urtetik aurrera.

- Aginduak.
Jolasa begiak itxita eta isilik jolasten da.
- Garapena.
Parte hartzen duten lagunak binaka jarriko dira, lurrean eserita, bata bestearen parean, oin-ekin, oinutsik, elkarri ukituz.
Denbora zehatz batean zehar, oinen bidez komunikazioa edo harremana ezartzen saiatuko dira.
- Ebaluazioa.
Lehenengo bikotean eta gero taldean, taldean bizitako emozioak, sentimenduak eta asmakuntzak adieraztea.
- Oharrak.
Aurretik parean edukiko duzun laguna ezagutu gabe egin daiteke, horretarako bikoteka jarri baino lehen begiak itxiz.

B) ZOOA

- Definizioa.
Bakoitzak bere bikotea aurkitu behar du, horretarako hots bat eginez.
- Helburua.
Bikotearen artean lankidetzaren behar da, ahalik eta azkarren aurkitu ahal izateko.
Sentikortasuna eta entzuteko ohitura indartzea.
- Partehartzaileak.
Taldea, gela, ..., 6 urtetik aurrera.
- Materiala.
Animalien izenak dituzten paperak (bi animalia bakoitzeko).
- Aginduak.
Iluntasuna eta bakoitzari tokatu zaion animalia hotsa egitea.
- Garapena.
Partehartzaile bakoitzari paper bat emango zaio, non animalia baten izena azalduko den.
Bakoitzak bere bikotea aurkitu behar du, horretarako egokitu zaion animalia hotsa eginez.
- Ebaluazioa.
Partehartzaile bakoitza, bere burua nola ikusi duen, bere bikotea aurkitzeko zein zailtasun izan duen, eta abar, azaltzen saiatuko da.
- Oharrak.
Partehartzaile txikiarekin, ez dugu bikoteka egingo, baizik eta animalien taldeetan antolatuko gara, azkarrago egiteko eta inor bikoterik gabe gera ez dadin.

C) *BIZKARREKO MASAJEA*

- Definizioa.
Lagunak atsegina sentitzea lortu nahi da.
- Helburua.
Gorputzaren kontaktua eta gorputza ezagutzea lortu nahi da, gorputzaren bidez komunikatzen ikasiz.
- Partehartzaileak.
Talde, gela, ... 6 urtetik aurrera.
- Aginduak.
Jolasa isilik jolastu behar da.
- Garapena.
Partehartzaileak bikoteka jarriko dira. Lauoinka jarri, burua erlaxaturik dutela. Beste laguna bere alboan dago belauniko. Belauniko dagoena bere eskuak ez tiki lagunaren bizkarraren gainean jarri behar ditu. Honako hauek izango dira aginduak:
 - Animalia astun baten antzera eskuekin bizkarraren gainean ibiltzea.
 - Arratoi bat bezain arin, behatz puntekin.
 - Zaldi baten antzera, arrapaladan.
 - Suge handi baten antzera.
 - Antzar trakets baten antzera.(Ziurtatu ezazue beste pertsonari atsegina egiten zaiola jolasa, adibidez: buruaz baietz, erlaxatuta dagoela esatea).
- Ebaluazioa.
Bikoteka. Partehartzaileek, euren sentimenduak komunikatuko dituzte. Masajea ematean masajea hartzean bezain beste atsegina sentitu ote duten, zein zailtasuna aurkitu duten.

D) *MIKROFONO MAGIKOA*

- Definizioa.
Objektu bat eskuz esku pasa behar da, eta objektu horren bidez bakarrik hitz egin daiteke.
- Helburua.
Lotsatienak hitz egitera animatzea. Hitz egiterakoan, entzuterakoan, eta abar, lankidetzaren indartzea, “zentzurik gabeko elkarrizketetan”, ...
- Partehartzaileak.
Taldea, gela ..., 7 urtetik aurrera.
- Materiala.
Arkatza, harria, eta abar, mikrofonoaren lana beteko duena.
- Aginduak.
Mikrofonoaren bidez bakarrik hitz egin daiteke. Batak besteari jarraian pasa behar dio mikrofonoa.

— Garapena.

Partehartzaileak biribilean eseriko dira. Mikrofono bat bailitzan erabiltzen den objektua pertsona batetik bestera pasako da. Partehartzaileek erabakiko dute hitz egin nahi ote duten ala ez, baita objektua hitz egin gabe pasa nahi ote duten ere. Mikrofonoa beste lagun batekin batera erabil daiteke (lankidetza).

— Ebaluazioa.

Mikrofonoa zure eskuetan edukitzean, hitz egitera animatu al zara? Mikrofonorik ez edukitzean, hitz egiteko aukerarik ez edukitzea ondo jasan al duzu?

— Oharrak.

Gauzak beste norbaitekin batera kontatzeko erabil daiteke.

ERANSKINA: *INDARTSU ETA EZTIA* IPUINA




INDARTSU ETA EZTIA

Iñaki Medelak idatzia

Azucena Vieites eta Itziar Okariz-en irudiak

Antton Burgoak itzuli eta egokitua



Kaixo! Nire izena Miren da. Potolatxoa naiz, eta garbitu berri nago; oso xalada naizela esaten didate, bai, beti.

Orain askaria jatera noa, amaren dendara. Etorri nirekin! Oso gozoki gozoak dauzka dendan.

Baina, zer ikusi dut? Ander, nire laguna! Amarekin dago, sukaldean. Ateko zirikitutik ikusten ditut haren eskuak, zuringoz zurituta, sekulako gerezi-tarta handia airean hartuta.

Ander, ai Ander! Nire lagun argal eta garritsua da; mutiko polit-polita dela esaten diote guztiek.



Non eta nola ezagutu nuen kontatuko dizuet.

Arratsalde batean gertatu zen; baserrian bizi den aitona ikustera, etxetik ir-
ten nintzenean. Kolore askoko kapela neramen beroa larria zelako.

Zuhaitzak distiraz, lorez beterik; eta zerua inoiz baino urdinago: itsasoak, goi-
tik zintzilik etzanda, zeruaren lekua hartu izan balu legez.

Bide erdian, iturri ondoan, dardarka hasi ziren zuhaitzetako orriak.



Eta aurpegi betean sentitu nuen haizea; zerura begiratu, eta kolorez aldatzen ikusi nuen; zurbil jarri zen, gaixo itxuran.

Artean ez ziren orriak bakarrik, zuhaitzetako loreak ere dardaraka ari ziren, eta, errotik urratuta, hega-dantzan hasi ziren nire buru gainean.

Soinekoa eraman behar zidan haizeak. Bizkarrean sentitzen nuen haizearen indarra, ikatzezkoak ziruditen hodeietara eraman nahiko banindu edo.

Ahotik sartu zitzaidan haizea, eta behelaino hezearen bustia dastatu nuen. Ikaratu egin nintzen.



Baina, ahots sakan eta latz bat laguntza eske entzun nuenean, arineketan alde-gitea pentsatu nuen; hala ere, inguruan bila hasi, eta zuhaitz zahar bat baino ez nuen aurkitu: negarrez, haize eroaren kontra alperriko borrokan zihardula. Lurretik atera behar zuela zirudien.

Orduan, aitonaren esku handi eta zuhaitz-esku zaintsuak etorri zitzaizkidan gogora, eta nire indar guztiekin besarkatu nuen zuhaitz zaharra nire esku txiki eta zuhaitz-esku zaintsuekin.

Batera, aitonaren ahots gorri eta ezitia gogoratu nuen, eta nire ahots busti eta eztiak lasaitu nuen zuhaitza, eta bihotza ikaraz izaten nuenean aitonak esaten zizkidan opil-berbak esan nizkion.

Horrela, heldu-heldu eginda, ekaitzaren enbata-astinduei aurre egin, eta, lehortuta, loak hartu gintuen.



Iratzartu nintzenean, sabela berotzen ari zitzaidan eguzkia, eta zuhaitz tantai baten geriza zebilen dantzan nire ileetan, txirikorda-jokoetan.

Zuhaitz zaharra gogoratu eta bila eta bila hasi nintzaion, baina ez zegoen han.

Izei adar berde eta gazte bat baino ez nuen aurkitu nire besoetan, eta, hala, nire abentuaren zati bat amets hutsa izan zela jakin nuen; eta bakarrik gaintu nuela, neuk, ekaitzaren baldurra; indartsu eta ezti igarri nion neure buruari; eta aitonari esatera joan nintzaion arineketan.

Orduan ezagutu nuen Ander. Iturri ondoan aurkitu nuen, izei adar berde eta gazte bat besoetan zuela, amak neba ttikia besoetan hartzen duen moduan.



Goizean, sustraiak eta landareak batzera joan zen Ander mendira.

Eta esan zidan, bera, zakutoa beteta, etxera pozik zetorrela, egarriak jo, eta iturrira hurbildu zela, ura edateko.

Une hartan, suzko tximista bat ikusi zuela, eta gau beltza bezalakoak zirela hodeiak; eta tximista hark, suarekin, kiskaldu egin zituela hodeiak, eta mendia zulatu.

Gero trumoa entzun zuen, eta burrunba-hotsez urdail-barruak lehertu zizkion harkaitzari.



Haizeak, bapatean, zakutoa atera zion bizkarretik, eta berak batutako arbel eta landareak oihaneko orbel eta landarekin nahasi zizkion, horma sendo lodi bat eginez.

Ahotik sartu zitzaion haizea, eta lurraren latz lehorra dastatu zuen.

Ikaratuta, geldirik egotea erabaki bazuen ere, negarrez ari zen ume baten inkesak entzun zituenean, bila joan zitzaion azkar; eta lurrean luze-zabal etzanda aurkitu zuen, galduta eta izututa.



Amaren esku handi eta zuhaitz-esku zaintsuak etorri zitzaizkion gogora, eta indar guztiekin oratu zion haurrari, bere esku txiki eta zuhaitz-esku zaintsuekin.

Amaren ahots gorri eta ezitia gogoratu zuen, eta bere ahots heze eta eztiak lasaitu zuen umea; eta Anderrek bihotza ikaraz izaten zuenean amak esaten zizkion opil-berdak, esan zizkion berak ere.

Hala, heldu-heldu eginda, ekaitzaren enbata-astinduei aurre egin, eta, lehertuta, loak hartu zituen.




Ander aurkitu nuenean, lo zegoen, baina han ez zegoen umerik, Anderren besoetan.

Iratzartu zenean, ume bila hasi zen, baina izei adar berde eta gazte bat baino ez zuen aurkitu; eta ni, han, berari geribra, irribarrez, potolatzo eta zoriontsu.

Bere istorioa entzun ondoren, neurea kontatu nion, eta bere abentura ametsa izan behar zela azaldu nion.

Eta orduan jakin zuen bakarrik gairitu zuela, berak, ekaitzaren beldurra: ezti eta indartsu igarri zion bere buruari.

Artean, izei adar berde eta gazteak astindu genituen, barreka eta saltoka.



Ordutik aurrera Anderrek landareak eta loreak zaintzen erakutsi dit, lehen zarkarrez eta lur lehorrez itota egoten ziren parajeetan jartzeko, eta inguru guztietan zabaldu nahi dugu landare eta lore usaina.

Nik opilak eta pastelak egiten erakutsi diot, eta amari laguntzen diogu biok denda.

Eta amets egiten hasten garenean, animalia galduak babesteko lekuak atontzen ditugu.

Orain biok dakigu pastelak egin eta loreak landatzen; baina, Anderrek ez daki zuhaitz bat landatu diodala: oparitan eman nahi diot, handi eta indartsu egin delako; eta nik ez dakit, baina ustez hola izango da, honantza dakarren gerezi-tarta bikain eta gozo hori, zuringo esku zuriekin egin eta amaitu berria, niretzat izango da, opari, bera bezain indartsu eta ezta naizelako: bere neska lagunik onena.